


Eraikuntzaren kostuek, 2022ko abenduan, egonkor diraute Euskal AEn

Urte arteko terminoetan, 2022ko abenduan, 2021eko abenduaren aldean, prezioen igoera % 8,5koa izan da

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizeak egonkor dirau (% 0,0) 2022ko abenduan, aurreko hilarekin alderatuta, Eustatek emandako datuen arabera. Aurreko urteko hil berarekin alderatuta, berriz, kostuek % 8,5 egin dute gora.

Eraikuntzaren sektoreko kostuek % 0,2 egin dute gora hil arteko terminoetan, eta Obra zibilekoek, % 0,8 behera. 2021eko abenduarekin alderatuta, prezioak % 9,4 igo dira Obra zibilaren kasuan eta % 8,3, Eraikuntzaren kasuan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, 2022ko azaroan, **lehengaien** kostuek eta **eskulanaren** kostuek egonkor diraute (% 0,0). Urte arteko terminoetan, berriz, lehengaien kostuak % 9,3 egin du gora, eta eskulanenak, % 5,8.

Lehengaien kostuak Eraikuntzaren sektorean % 0,3 egin du gora, hilen artean, eta Obra zibilarenean, % 1,0 behera. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehenagaien kostuek % 9,1 egin dute gora, eta Obra Zibilekoek, % 10,5.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2022

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	121,8	0,0	8,5
Eraikinak	121,2	0,2	8,3
Obra zibila	124,3	-0,8	9,4
Lehengaiak	123,4	0,0	9,3
Eraikinak	122,7	0,3	9,1
Obra zibila	126,6	-1,0	10,5
Laneskua	116,7	0,0	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urtarrilaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehenagaien prezioetan, 2022ko abenduan, 2021eko abenduarekin alderatuta, igoerarik handienak erregistratu dituztenak honako sektore hauetakoak izan dira: *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 25,2), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 23,7) eta *Industria kimikoa* (% 22,2). *Material elektronikoa*, bestalde, prezioetan urte arteko jaitsiera izan duen sektore bakarra izan da, % 1,4koa.

Euskal AEn kontsumitutako lehenagaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Abendua 2022

	m / m-12
Ezmetalezko meak	6,3
Zuraren eta kortxoaren industria	25,2
Petrolioaren finitzea	18,4
Industria kimikoa	22,2
Kautxua eta plastikoa	6,5
Produktu mineral ez-metalezkoak	13,1
Metalgintza	18,6
Metalezko artikulak	11,0
Material elektronikoa	-1,4
Material elektrikoa	5,5
Makineriaren fabrikazioa	3,5
Altzarigintza	7,8
Energia elektrikoa eta gasa	23,7

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Urtarrilaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62